

**ERAIKUNTZA PRIBATUAK BARRIZTATZEKO UDAL  
DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DAUZAN ARAU OROKORRA**

I ATALA – KONTZEPTU OROKORRAK.

II ATALA – DIRU LAGUNTZEN ARAUTZE OROKORRA.

III. A TALA - ZERTARAKO ZUZENDUKO DIRAN LAGUNTZAK.

IV. ATALA - HOBARIDUNEN BETE - BEHARRAK.

V. ATALA - ZAINPENA ETA ZIGORRAK.

VI. ATALA - DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETEA.

AZKEN XEDEAK.

XEDE IRAGANKORRA.

# **ERAIKUNTZA PRIBATUAK BARRIZTATZEKO UDAL DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DAUZAN ARAU OROKORRA**

## **I. ATALA KONTZEPTU OROKORRAK**

### **1. ARTIKULOA**

Arau honen helburua, BERMEOKO URIGINTZ BARRIZTATZE ALKARTEA (BERUALA) k Uri Zahar inguru barruko eraikuntza pribatuak barriztatze obrak bultzatzeko onartu daitekezen diru-laguntzak ezartea da.

### **2. ARTIKULOA**

Diru-laguntzak, Arau honek ezarritakoagaz batera emongo dira, uritu eta eraikitze ondasunak bergaitzeko Euskal Herriko Autonomi Elkarteak emondako erizpide eta araei jarraituz, gaur egun, Eusko Jaurlaritzako 1.990/189 Dekretoa eta garatu edo aldatuko dauan beste legedia, Bermeoko Uri Zaharra Bergaitzeko Egitasmo Berezia eta bere teknikarien aurretizko txostenaz, BERUALA Elkarteko Administrazio Batzordea.

### **3. ARTIKULOA**

Arau honetan araututako laguntzak emoteko barriztatze obra lege hartuko dira, eraikuntza edo etxebizitzaren egitura eta eraikuntza egokia lortzeko diran guztiek, baita, euren bizigarritasun baldintzak garatzekoak ere.

### **4. ARTIKULOA**

Arau honek araututako diru-laguntzak, BERUALA Elkartearen bidez, Bermeoko Udalak, herri guztiaren ondare bat dan Uri Zaharreko eraikuntzak berreskuratzeko eta barrizteko diru arloan egiten dauan ahalegin bat dira.

### **5. ARTIKULOA**

BERUALAk emoten dauzan diru-laguntzak, bere urteko aurrekontutik emongo dira, horretarako zehaztutako egongo diran kontu sailetatik. Kontu-sail horreen diru - kopurua, bere errekurtsoen arabera edo Udalak erabakitakoa izango da.

Emongo diran diru-laguntzen guztirako kopuruak, Enpresa honen aurrekontuan, urtero horretarako ezarritako kreditu mugak izango dauz, kreditu horrek izan daitekezan zabalpenen kalte barik. .

## II. ATALA. DIRU LAGUNTZEN ARAUTZE OROKORRA

### 6. ARTIKULOA

Diru-laguntzak, kasu bakoitzaren egoerea aztertu ondoren emongo dira, Eusko Jaurlaritzako 1.990/89 Dekretoak eta berau garatu edo aldatzen daun legediak ezarritako baldintzetan.

### 7. ARTIKULOA

Arau honetan arautzen diran diru-laguntzek, bakoitzari, galduan emoten diran errea hartuko dabe, eta Arau honetako baldintzak bete beharko dira emon ahal izateko, emoteko erabakia hartzen danean ezarri daitezalarik.

Diru-iturririk eza, larria balitz, BERUALA, S.A.k, Eusko Jaurlaritzagaz daukan Hitzarmenaren barruan banketxe batek emondako barrizteko kreditua gitxitzeko edo ordaintzeko laguntzak emongo leukez.

### 8. ARTIKULOA

Diru-laguntzea eskatzen dan obra guztiak, bere egin-ahalmena, eta eraikuntza eta tekniko arloko zentzuna egiaztatu beharko dau, eraikuntza, etxebizitza edo lokala hobatzeko izan beharko daualarik.

Guzti hori, beharrezko tekniko agirien bidez egiaztatu beharko da, eraikuntzarako legediaren arabera, eta batez ere, obra lizentzia emoterakoan Udalak kasu bakoitzerako ezarritakoaren arabera. Hala ere, Enpreseak, egokiak deritzoan agiri teknikoak aurkeztea eskatu daiteke.

### 9. ARTIKULOA

Diru-laguntzak hartu daikjez, ondorengo baldintzak betetzen dabezanez:

- a) Eraikuntza osoen jabeak.
- b) Solairukako jabetza mailan .banandutako eraikuntzetan, etxebizitza edo lokalen jabeak bakarka edo Etxeko Jabe Elkarte legeaz egiten dabezan lanetan.
- c) Etxebizitza edo lokaletako errentadoreak, zehaztasun berezi batzuk, hamar urtetik gorako errentadunen kasuan, edo ta jabea eta errentadorearen artean inolako hitzarmen berezirik balego, obrak honek egin beharra agertuko balitz.

Kasu honetan, 21.1 artikulok dinoana ezarriko jako jabeari.

- d) Arau honen barruan, gero barrizteko etxe-erosleak, gorpuzdun pertsonak diran bitartean.

Laguntzen hobaridunak, bakoitzaren izenean izango dira beti ere, obrak elkarrekin egiten badauz ere, diru-laguntzak, hainbanakoa edo bakoitzaren parte hartzearen arabera emongo diralarik.

## 10 . ARTI KULOA

1.- Diru-laguntzak zehazteko, Udalari aitortutako obren aurrekontu orokorra izango da kontutan, honela zehaztu beharko dalarik:

a - Egite Materialaren Aurrekontua.

b - Industri Hobaria eta Gastu Orokorrak, lege ezarrita dagozan kopuruetan.

2.- Aurrekontu hori, gehituko jakoz:

a - Soldatak, edo ta, egitasmoa egitea eta obrearen zuzentza teknikoa .

b - Eskubideak, tasak, salneurri publikoa, eta beste honelako ordainkizunak, Udal tasak eta Gain Balio Zergea kenduta.

Obren taseak, % 90aren hobaria izango dau, Uri Zaharreko babesaldeko beste guztiak legeez.

## 11. ARTIKULO A

Zalantzarik balego, BERUALAko zerbitzu teknikoen aldetik, laguntzea ezarteko, obren aurrekontu orokorraren balioa neurtuko litzateke.

## 12. ARTIKULO A

Arau honen eraginetarako, egoitzarako eraikuntza legeez, gitxienez, bere azalera erabilgarriaren % 70a etxebizitza bada, beheitia kendurik.

### **III. ATALA - ZERTARAKO ZUZENDUKO DIRAN DIRU LAGUNTZAK.**

## 13. ARTIKULO A

Arau honen barruan, BERUALAk emongo dauzan diru-laguntzak, obra honeetarako izango dira:

a) Egoitzarako eraikuntzen egitura eta eraikuntza egokia lortzeko, jabe elkarteko elementuetan egiten diran ekintzak, baita eraikuntza onagaz baterako lan orokorrak.

b) Etxe barruetan egiteko diran egitura eta eraikuntza lanak, baita eraikuntza onagaz baterako lan orokorrak.

- c) Erosketa-Barriztatze izeneko erosten dan etxeak daukazan barriztatze lanak.
  
- d) Uri Zaharraren Bergaitze Egitamu Bereziak edo BERUALAKo Adrninistrazio Batzordeak Lehentasunezko Interesdun legez sailkatutako egoitazko ez diran lokalen barriztapenerako ekintza pribatu eta bakarkakoak.
  
- e) Jabe Elkarte edo jabekidetzapean etxebizitzan eragipena helburutzat dauan barriztatze lana, Eusko Jaurlaritzako 1.990/189 Dekretoak edo berau aldatu edo garatzen dauan legediak eskatzen dauzan baldintzak beteten diranean.
  
- f) Egiteko dan lanarentzat beharrezkoak diran, tekniko soldatak ordaintzeko diru-laguntzak.
  
- g) Egoitazkoak ez diran eraikuntzetan, monumentu edo Uri Zaharreko Egitamuan edo BERUALAk Babespeneko Ondasun legez onartuta daukazan edo Eusko, Jaurlaritza edo beste Erakundeekaz dagozan hitzarmenen arauera, lan bereziak behar daben eraikuntzetako ekintzak.
  
- h) Ezinduek egin beharreko egokitze lanak.

#### 14. ARTIKULOA

Diru-laguntzak, Eusko Jaurlaritzako 1.990/189 Dekretoak edo berau garatu edo aldatzen dauan legediak ezarritako erizpideekaz emongo dira.

BERUALA, S.A.k emongo dauzan diruen kopurua, Eusko Jaurlaritzearen laguntzea bezalakoa. izango da, hurrengo artikuluetan ezarritako berezitasunen kalte barik.

#### 15. ARTIKULOA

Eusko Jaurlaritzako 1.990/189 Dekretoak ezarterakoan lortzen dan diru-laguntzearen hainbanakoa, BERUALA, S.A.ren laguntzea ezarteaz gehituko da, ondorengo kasuetan.

1. Lanbidearteko Soldatarik txikienetik beherako urteko diru-sarrerekaz Sendiak: Babesteko Aurrekontuaren % 10a.
  
2. Lanbidearteko Soldatarik txikiena, 3,5 bider gaintitzen ez dauan urteko diru-sarreredun 5, 6 edo senide gehiagodun Sendia: Babespeko Aurrekontuaren % 5a.
  
3. 30 urte gaintitzen ez dauan sendi burudun sendiarentzat ohizko egoitzea izango dan etxebizitzea barrizteko erostea: Babespeko Aurrekontuaren % 15a.

4. Azalera erabilgarriak % 60a gainditzen ez dauzan etxeetan, Lanbide arteko Soldatarik Txikiena, 3,5 bider gainditzen ez dauanean, barriztatze kaauetarako: Babespeko Aurrekontuaren % 5a.

## 16. ARTIKULOA

Egoitzazko eraikuntzetan elkarren arteko elementuetan egiten lanagaitik, etxe horren jabeak, gorpuzdun pertsona bada, eta lanen amaieratik hasitako hiru hilabeteren barruan izango badau edo ta errentan jarriko badau, jagokon babespeko aurrekontuaren, % 5aren mailako diru-laguntzarik txikiena izango dau.

Honela ba, zenbakizunak eginez gero, eta teknikarien soldatei buruzko diru-laguntzea, gertatzen dan diru-laguntzea ez da gitxiengo horretara-heltzen, hasiera baten urteten dauan zenbakizuna gehituko litzatekelarik orduan, gitxiengo hori lortu arte.

## 17. ARTIKULOA

Egoitzarako eraikuntzen etxebizitza barruetako barriztatze lanetan, Lanbidearteko Soldatarik Gitxiena. 3,5 bider gainditzen daben sendiko diru-sarrera kasuetan, diru-laguntzarako eskubidea egongo da, sendiaren diru-sarrera eta aurrekontuaren artean, honako hainbanakoak beten badira:

Sarrerak – 1 Aurrekontua	Diru-laguntzea % 3a
Sarrerak - 0,75 Aurrekontua	Diru-laguntzea % 5a
Sarrerak - 0,5 Aurrekontua	Diru-laguntzea: % 8a

Aipatutako hainbanakoak, babespeko aurrekontuari ezarriko Jakoz, eta diru-laguntzearen kopururik han dienak, 200.000,-, 250.000,- eta 300.000,- etxe bakoitzagaitik, eta lortzen diran laguntzak, guztien elementuei buruzko ekintzen ondoriozkoei gehitu daitezke.

## 18. ARTIKULOA

Bergaitze Egitamu Berezia Lehentasunezko Interesdun legez sailatutako egoitzarako erabiltzen ez diran lokalak barrizteko ekintza pribatuetan, galdutzat, babespeko aurrekontuaren % 10aren diru-laguntzea jasoko dabe.

Diru-laguntzearen kopururik handienak ezin izango dauz, 300.000 pezetak gainditu, lokaleko.

## 19. ARTIKULOA

Edozelan ere, izaera orokorreko arau legez, onartzen daben baldintzen beteten badau, obren egite ona bermatzeko behar diran teknikarien soldatetan lagundu litzateke diruz. .

Horren arauera, ordaindu beharreko dirutza osoak, ezin izango dau, teknikarien soldaten % :50a gainditu, egiaztaturik, ez eta 80.000 pezetatako kopuru handiago bat ere, bakarkako espedienteetan edo 400.000 pezeta, jabe elkarteetan.

Dana dala.,galduan emondako diru-laguntza guztien zenbaketeak ez dau, babestutako aurrekontuaren % 75a gaindituko.

#### **IV. ATALA - HOBARIDUNEN BETE-BEHARRAK.**

##### **20. ARTIKULOA**

BERUALA, S.A.k emondako diru-laguntzen hobaridunek, honako betebeharrak honeek dabez:

1. Hartutako diru-laguntza osoa, emon dan helbururako erabiltzailea.
2. Ezarritako epe eta baldintzetan, eta laguntzak hartzeko aurkeztutako agirietan azaldutako aurrekontu eta materialeekaz egitea barriztatze lana, beti BERUALA, S. A. ren kontrol eta menpean.
3. Une guztietan, BERUALA, S.A.ko zerbitzuen bisitaldia onartzea, baita, eureka eskatutako eta lanagaz zerikusia daben agiriak .
4. Lanen amaieran, euren guztirako oso eta azkena egiaztatzea, horretarako. egiaztapen, faktura, edota beste edozein agiri agertu beharko da, BERUALA S.A.k eskatu ezker.
5. Barriztutako etxebizitzek, eskatzailearen ohizko egoitzea izan behar dabe, azken egiaztapenetik hasitako hiru hilabeteko epe barruan, edo ta, epe horretan emon beharko dira errentan.

Era berean, diru-laguntzak jaso dabezan etxeak lanak amaitu ta sei hilabeteko epe barruan erabili beharko dira.

##### **21. ARTIKULOA**

1. BERUALA, S.A. ren diru-laguntzea hartu daben etxe edo/ta lokalek ezin izango dira jabetzaz aldatu, Eskubideko inolako eratan, ezertariko titulo bidez, ofizial babespean dagoan arte, laguntzea, Enpreseari itzultzeko zigorpean, baliogabetzen dan egunetik hasitako legezko interesekaz. Horretarako. BERUALA, S.A.k legezko diran neurri guztiak hartu, daitekezalarik.

2. Ofizial babesa, aurretiz errentan ez dagozan etxebizitzak kenduta, orokorrean, ondorengo mailatan jarritako babestutako aurrekontuaren ondorioz ezarriko da:

- a) Indarreko Modulo (M) neurtua, 0,08 eta etxeko azalera erabilgarriaren metro karratuekaitik biderkatuz, ondorenak, gainditzen ez badau babespeko aurrekontua: 5 urte.
- b) Indarreko Modulo (M) neurtua, 0,40 eta etxeko azalera erabilgarriaren metro karratuekaitik biderkatuz, ondorenak, gainditzen ez badau babespeko aurrekontua: 10 urte.
- c) Aurreko ataletan ezarritako mugak baino handiagoa izanez gero, babespeko aurrekontua: 15 urte.

3. Aurreko ataletik kanpo geratzen dira:

- a) Barriztatze mailegua ez ordaintzeak lekarten ekintza eragitzalerik balego.
- b) Etxebizitza saltzearen baldintzapean emon bada diru-laguntzea.

## 22. ARTIKULOA.

BERUALA, S.A. k, egokiak deritzozan berme guztiak eskatu daitezke, hipoteka bat jartzea, barruan dala, bere laguntzen araberako baldintza guztiak beteko dirala ziurtatzeko, hobaridunek, bere kargura, horretarako indar oso a izango daben agiriak izenpetu beharrean aurkituko diralarik.

## 23 ARTIKULOA

Diru-laguntzei jagokezan zergen ordainketea, hobaridunen kontura joango da, osorik.

## **V ATALA - ZAINPENA ETA ZIGORRAK.**

## 24. ARTIKULOA

BERUALA, S.A., eskatzaileek emondako zehaztasun eta datoek egizkoak diran zehazteko, egokiak, lirateken zainpen eta ikertze ekintza eta era guztiak erabiltzeko ahalmena gordeten dau.

## 25. ARTIKULOA

Eskatzaileek emondako zehaztasunak, isilekoak izango dira, eta ezin izango dira, aurkeztu diran helhuruetatik kanpo, beste ezertarako erabili, interesadunen baimen zehatz barik, goi mailako arauak agindu ezik.



## 26. ARTIKULOA

BERUALA, S.A.ren Administrazio Batzordeak, ziodun erabakiaren, bere ahalmenak erabiliz, emondako edo onartutako diru-laguntzak baliogabetu daitezke. Arau honetako IV. Atalean agertzen diran bete-beharrak beteten ez dabezan hobaridunei.

Laguntzen baliogabetzeak, hartutako diru-laguntza guztiak, hartutako egunetik hasitako epearen interesekaz itzultzea, erakarriko leuke.

Zigor bardina izango da, honako kasuetan:

- a) Diru-laguntzak emoteko eskatu diran datu eta agiri faltsuekaitik.
- b) BERUALA, S.A. ren lanari eragozpenak jartzea.

BERUALA, S.A.k egokiak lirateken ekintza guztiak burutu daitezke, baliogabetzea jaso daben laguntzak itzularazteko.

## 27. ARTIKULOA

Indar handiagoko edo ta beste honelako kasuak izan ezik, lanen amaierak jasandako atzerakuntzeak, zigorrak erakarriko dabez, onartutako laguntzak gitxitu edo ta baliogabetuz.

Horretarako, lizentzia emoteko orduan ezarriko dau Udalak kasu bakoitzean lanak amaitzeko epea: Epe hori ez da la bete, aitortuko da, Udalak, lizentzia balio barik izten dauan egunean.

## **VI. ATALA - DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETA**

## 28. ARTIKULOA

Arau honek hartzen dauan inguruan kokatzen diran etxebizitza edo eraikuntzen barrizatzerako diru-laguntzak lortzeko interesadunek, BERUALA, S.A.re n aurrean, diru-laguntzen eskari egokia aurkeztu beharko dabe.

Eskari hori ofizialki ondorengo agiriekaz erantsiko da.

- a) Eskatzailearen nortasun agiria, edo ta bere ordezkariitzearena.
- b) Etxe edo eraikuntzearen jabetasun egiaztagiria.
- c) Ereentadoreak egingo baleuz obrak, eskatzen diran agiri bereziak.

- d) Etxearen azalera erabilgarriaren egiaztagiria, eta bere edo eraikuntzearen aintzinakotasuna.
- e) Egiteko diran lanen agiriak, euren egutegiagaz.
- f) Jabe Elkargoaren Erabakia, jagokon kasuan.
- g) Obrako Udal Lizentzia, edo Udalaren Egite Agindua.
- h) Azken urte bietako errenta eta ondasun aitorpena.
- i) Oihozko edo betiko egoitzea izango dala etxea, egiaztatzea, edo ta, lanen amaieratik hasitako hiru hilabeteren barruan erroldatzeko konpromezua edo errentan jartzearena.
- j) Lokal jabeek, zerga lizentzia edo Udalaren aurrean zabaltze edo iharduera lizentzia bideratzen ari diranaren egiaztagiria aurkeztu beharko dabe.
- k) BERUALA, S.Aren ustez, aurkeztutako laguntza eskaria erabakitzeko beharrezkoa litzateken beste edozein agiri.

## 29. ARTIKULOA

BERUALA. S.A.k. eskatutako agiri guztiak, aurkeztu diranetik hasitako bi hilabeteko epean, laguntza eskariari buruzko hartutako erabakia, jakinaraziko deutso eskatzaileari, hamabost egunen barruan, erabaki horren aurka, Administrazio Batzordearen aurrean erreklamazioa aurkeztu daitekelerik. Erabaki barria, behin-betirakoa izango da.

## 30. ARTIKULOA

Laguntzak onartu ezkeru, ordainketea, honela egingo da:

- a) Bergaitze laguntzak: Orokorrean, lanak amaitu ondoren ordainduko dira, baina, lanen diru-kopurua, edo ta hobaridunaren diru ezak eraginda, onartzen dan unean % 25a ordaindu leike, eta gainontzekoa, aurkezten diran obra-egiaztapenen bidez, hainbanakoetan.
- b) Erosketa-Bergaitze Laguntzak: Erosketei jagokezan laguntzak, salerosketa agiria aurkezten danean emongo dira. Barriztatze lanarenak, aurreko hizkian agertzen den erataru ordainduko dira.
- c) 10.3 artikulok ezarritako baldintzak betetu ondoren, emongo da, obrako udal lizentziaren diru-laguntzea.

BERUALA, S.A.k ezarriko dau, ordainketak egiteko erea, orokorrean, izendatutako txeke edo transferentziaz egingo dalarik. Hori horrela, BERUALA,

S.A.k ordainketak zuzenean egiteko eskubidea gordeten dau, eta onartutako laguntzen kontura, Lanbide Elkargo, eraikileari edo ta lanetan parte hartzen daben langile mota ezberdinei.

### 31. ARTIKULOA

Administrazio Batzordeak, legezko eta zuzentzeko arauen barruan, Arau hau ulertzeko eta ezartzeko askatasun osoa, izango dau.

## **AZKEN XEDEAK**

### LEHENENGOA

Arau honetan agertzen, ez dan guztian, Uritu eta Eraikitako Ondasunen Barriztapen arloan, Euskal Autonomi Elkartean indarrean dagozan 1.990/189 dekretoak edo berau osotzen daben arauk dinoenara egongo da.

### BIGARRENA

Arau hau, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan hurrengo egunetik hasiko da indarrean, eta 1.993eko lehen egunetik hasita aurkezten diran eskari guztiei ezargarria izango da.

### XEDE IRAGANKORRA

Enpreseak, bere Teknikaririk ez dauan arte, Arau honetan agertzen diran txostenak, Udal Teknikariek emongo dabez.